

Noaia!!!

www.noaia.com



Reziklarte ondoren,
Merka2 San Markos azoka



Osasunez bizitzeko eskubidea
aldarrikatuko dute larunbateko manifestazioan

Elkarlana



Gipuzkoa Herri Alkateak
Diputazio Foral de Gipuzkoa



 kutxa



ADEGI



CÁMARA DE COMERCIO,
INDUSTRIA Y TURISMO
DE GIPUZKOA



Euzko Legebiltzariaren
Batzordea



Diputación Foral de San Sebastián



gipuzkoa aurrera

Elkarlanean, ilusioak, helburuak eta proiektuak aurrera.

Gipuzkoa Aurrera aliantza publiko-privatutik elkarlanean ari gara,
indarrak eta ahaleginak batuz.

Gipuzkoa guztiaren gainera dagoelako.

Albiste iruditan !!

Radarr mugikorra N-634 errepidean

Zebra bidea nabarmendu, errepidea gorri deigarri batekin margotu eta gehieneko abiadura 50ean mugatu dutenetik, behin baino gehiagotan jarri dituzte abiadura kontrolak Kalezarren. Radar mugikor batek neurtzen du autoen abiadura eta muga pasatzen duten autoak, Ugaldea industriadeko sarreran gelditzen dituzte. Ohitura falta izango da, baina aurreko astean auto asko geratu zituzten gehiegizko abiaduran joategatik.

Antzeko kontrolak ere maiz egiten dituzte Aginagan; han ere, gehieneko abiadura 50ean ezarrita dago.



OHITURA FALTA IZANGO DA, BAINA BATZUK ABIADA BIZIAN PASATZEN DIRA DRAINDIK.

Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberi 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Mainer Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
 Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA **5. OR.**

BERDINTASUNERAKO PLANA OSATZEN **6. OR.**

PATXI SEGUROLAREN MARGOAK IKUSGAI **8. OR.**

SANTA ZEZILIKO KALEJIRA, IRUDITAN **12. OR.**

LARUNBATEAN, BERTSO-KANTU JIRA **13. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



NEREA ZINKUNEGI

Ahuntzaren gauerdiko eztula

Data seinalatuaren gertutasunak gaiaren inguruan idaztera narama, ez da lehenengo aldia eta ziur naiz azkena ere ez dela izango. Pasa den aste-ko NOAUA!ko atal honetan idatzirikoak ere zuzena-ko edo zeharka gaia ukitzen zuen. Bai, ditxosozko azaroaren 25a, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna, zenbat aurkako, zenbat kontrario.

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Eguna adierazten duten irudien bila jo dut ordenagailura, nola ez. Ditxosozko eguna irudikatzen duten kartel gehienetan gizon baten irudia atzeman daiteke emakume bat jotzera doala, edo ubelduz jositako emakume baten aurpegi ezaguna, pertsona ezagunen irudia erabiltzeak gizartean eragin gehiago izango balu bezala, edo beilatokian dagoen emakume gorpuaren hankako behatz potolotik zintzilik dagoen etiketaren argazkia, edo...eta kartel gehienetan biolentzia fisikoa da irudikatzen dena. Baina, nire uste apalean behin-

tzat, emakume eta gizonen aurkako terrorismoa, bai, ondo irakurri duzu, gizonen aurkakoa ere bai, gure etxeetan hasten da loratzen, koadrilan, lankideekin...

Irribarre artean gizonak bi gauza batera egiteko gai ez direla aipatzean, emakumeok garunik ez eta naturak horren ordez titi pareta oparitu digula algara artean esatean, gidatzen traketsak garela aho bete esatean, modu serioan gainera, egi enpirikoa izango balitz bezala, gizonak zabarrak direla, zakarrak, desordentatuak, arduragabeak...

Bai gizonei, bai emakumeoi, ustez naturak jarritako ezaugarri horiek K-U-L-T-U-R-A-L-A-K besterik ez dira. Gure ondorengoak, umeak, gazteak, pertsonak bezala hezten hasten ez garen bitartean jai daukagu, hezkuntza munduan mutila izatea edo neska izatea bigarren mailako anekdota bat izatera iritsi arteko bidea geratzen zaigu bakarrik, ahuntzaren gauerdiko eztula!

Ez etsi!

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Zuberoako ikastolen aldeko otarrak

Ipar Euskal Herriko ikastolen Egoera ez da onena. Honen aurrean, Nafartarrak taldekoek elkartasun ekimen berri bat jarri dute martxan. Gabonetako otarrak erosiz, Zuberoako ikastolak lagundu ditzakegu. Datorren astean amaitu da otarrak eskatzeko epea.

Lehen otarrak hau dakar: ardi gazta (1 kg), patea ahate gibelarekin egina

(200 gr), gurinezko gaileta pakete bat, txahalki kontserba piperrekin, berotu eta arrozarekin edo patatekin jateko prest (750 gr). Prezioa: 49 euro.

Bigarren otarra horrela osatzen da: ardi gazta (1 kg), ezta (500 gr), patea, ahate gibelarekin egina (200 gr), gurinezko gaileta pakete bat.

Prezioa: 36 euro.

Otarrak eskuratzeko, izena eman Bordatxon, Txiribogan edo

NOAUA!n. Bestela ere, idatzi e-mail bat, nafartarrak@terra.es edo Nafartarrak Kultur Taldeko kideekin harremanetan jarri.

Abenduaren 12an kantaldia egingo da Sutegin

Kanpaina abenduaren 12an amaituko da. Egun horretan kantaldi bat egingo da Sutegin. Zuberoako abeslariak hurbilduko dira.

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: abenduak 4. Idatzia ekartzeko azken eguna: azaroak 30.

Kalean da euskarazko produktuen katalogo berritua

Zer oparitu erabakitzea sarri buruhauste bihurtzen den garai honetan, kaleratu ohi da euskarazko produktuen katalogoa. Hamabigarrenak badakar ordea bestelako nobedaderik; gaiari lotutako web orrialdea berritu eta indartu dute eragileek. Azken ukituak falta izan arren, jada honako helbidean bisita liteke: www.katalogoa.org

Euskal Herriko 220 entitatetik gorako parte hartzaile kopurua duen euskal produktuen katalogo berria, paperekoa, kalean da. 240.000 ale banatuko dira, etxebizitza edota ikastetxeetan, horietatik 8.900 bat Buruntzaldean. 16 urte arteko haur eta gaztetxoei zuzendutako aisialdi arloko produktuak dakartza aurtengoak ere, zortzi ataletan sailkatutako produktu sorta; musika, DVD filmak, aldizkariak, komikiak, liburuak, gurasoentzako materiala, informatika eta jostailu eta jokoak. Adin tarteka jasota ageri dira adibidez, musika lan edota liburuak.

Produktu bakoitzari oinarrizko informazio ez zaio falta; ilustratzeko irudia, argitaletxearen izena edota prezio orientagarria. Aisialdia euskaraz gozatzeko gonbita zabaldu zuten, hilaren 23an Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean, prentsaurrean bildutako Buruntzaldeko euskara teknikari eta udal zinegotziek. Bereziki gurasoei euskarazko produktuak badirela adierazi, produktu hauen berri eman eta merkatuan bultzatu



EZKER ESKUIN, MALORES ETXEBERRIA
EUSKARA TEKNIKARIA, RIKARDO ORTEGA
ETA PETRI ROMERO LASARTE ETA
ANDOAINGO EUSKARA ZINEGOTZIAK.

tu nahi dituzte eragileek, katalogoaren bidez.

Noiznahi, sarean

Papereko produktuan, azken aldiari plazaratu diren produktu asko jasoak daude, baina epe laburrean papereko edizioa zaharkitua geratuko da. Horregatik, aipatu egitasmoko eragileek teknologia berriak baliatu dituzte, edonork katalogoa noiznahi kontsultatu ahal izateko. Pasahitz baten bidez, argitaletxeek produktu berriak web orrialdean zintzilikatu eta zaharrak kentzeko aukera izango dute. Eskaintza kontsultatu, produktuak erosi eta gomendatzeko aukera egongo da, web orrialde berrian argitaletxeetarako atarietara bideratzeko jarri dituzten loturei esker. Bestela, katalogoko produktuok gertuko liburu dendatan eskura litezke. Euskarazko produktuak salgai dituzten dendek, identifikagarri bana ere izango dute.

Kultura Aholku Batzordearen bilera

A benduaren 2an asteazkena, Herriko kultur taldeek hitzordu garrantzitsua dute: Kultura Aholku Batzordearen bilera. Garrantzitsua, kultur arloko diru-laguntzen orain arteko balorazioa egin eta deialdi berriaren planteamendua aurkeztuko baita. Arratsaldeko 18:30ean hasiko da Aholku Batzordea, udal-letxean.

Eskultura lehiaketako sari banaketa, igande eguerdian

Irailean, Mikel Laboaren omeinezko eskultura lehiaketa jarri zuen martxan Udalak. Guztira 27 lan aurkeztu ziren lehiaketara. Epaimahaiak erabaki du saria nori eman. Baina irabazlearen izena igande honetan egingo den ekitaldian emango da ezagutzera. Sari-banaketa 13:00ean egingo da Mikel Laboa plazan bertan.

Erakusketa Sutegin

Lehiaketara aurkeztutako lanekin erakusketa osatu dute Sutegin. 27 lan aurkeztu ziren eta maketak ikusgai jarri dira Sutegiko erakusketa aretoan. Abenduaren 8ra arte, lehiaketara aurkeztutako lanak ikusteko aukera paregabea izango dugu. Ordu-tegia: goizeko 10:00etatik 13:00era, eta 16:00etatik 19:00etara.

Plaza berri bat egin nahi da Santuenean

Aspaldiko beharrei erantzunez, AUsurbilgo Udalak Santueneko egungo kirol eta aisigunearen espazioa birmoldatzeko asmoa du. Hasi da, auzotarrekin batera, proiektu berria borobiltzen.

Auzoko beharrak (jolasa, aisia, gune estalkia...) asebeteko dituen espazio

librea lortu nahi da. Honen ondorioz, egungo jolasgune irekia plaza berri batean bilakatuko litzateke.

Hasierako proposamenak aurkeztu eta auzotarren lehentasunak eta iritziaz ezagutzeko bilera bat egin dute aste honetan, Santueneko Kultur Elkartearen lokalean.



SANTUENEAK ERAIKIN ESTALI BATEN
PREMIA DU ASPALDITIK.

Herritarrek egindako ekarpenekin osatuko da Berdintasunerako Udal Plana

Kultura, kirola, gizarteratzea... aukera berdintasunaren ikuspegitik jorratu dira azken asteotan herrian burutu diren bilkuretan. Iaz egindako diagnosiko emaitzak aurkeztu dituzte eta herritarrei proposamen edo ekarpenak egiteko aukera eman. Udalak eta Elhuyar Aholkularitzak elkarlanean bultzatutako egitasmoko hurrengo urratsa, ekarpen horiek Berdintasunerako Udal Planean txertatzea izango da.

NOAUA! Berdintasun aukeren inguruko bilerak egin berri dira Usurbilen. Zer moduz joan dira?

Aitziber Salaberria. Hasteko esan behar dugu, pozik gaudela bileretara gerturatu den jende kopuruarekin. Usurbil herri txikia da eta gaia lantzeko modua berria askorentzat, baina bilertara jendea gerturatu da, interes handiarekin. Bakoitzak, bere iritzi eta ekarpena eman ahal izan du gehien interesatzen edo ezagutzen duen arloaren inguruan eta ekarpen hauek guztiak Usurbilgo Berdintasunerako Udal Planean jasoko ditugu.

AITZIBER SALABERRIA, ELHUYAR

“Zorionez, emakumeen aurkako indarkeriaren arazoari aurre egiteko gero eta neurri gehiago hartzen dira”

N. Gaika antolatu dituzue bilerak; kultura, kirola, gizarteratzea... Jasotakoarekin zer ondorio ateratu duzue?

A. S. Bilera hauetan lantalde bakoitzak, Berdintasun Planaren oinarri nagusiak landu ditu eta haren esparruari dagozkion helburuak eta ekimenak zehaztu ditu. Horretarako oinarritzko tresna izan dugu Usurbilgo emakume eta gizonen aukera-berdintasunaren inguruko diagnostikoa.

Orokorrean esan behar da, arlo guztietan dagoela zeregina eta arlo guztietan egin daitezkeela aukera-berdintasunaren sakontzeko ekintzak eta programak.

N. Indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna izan da aste honetan. Tratu txar kasuetan nola jokatu, zer protokolo aplikatu... Gai hau zehazki zer modutan landu eta islatu nahi izan duzue?

A. S. Berdintasun-planak lau ardatz nagusi jasotzen ditu: “Mainstreaming” delakoa; Emakumeen ahalduntzea eta gizarteraren eta politikaren arloko parte-hartzea; Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna; eta emakumeen aurkako indarkeria. Emakumeen eta gizonen arteko desorekaren adierazpen larrietako bat da emakumeen aurkako indarkeria. Giza eskubideen urraketan larria eta onartezina da eta desagerarazteko ezinbestekoa da biktimei babesa eta arreta emateko neurriak eta baliabideak antolatzea. Zorionez, emakumeen aurkako indarkeriaren arazoari aurre egiteko gero eta neurri gehiago hartzen dira, ahal baldin bada aurrea hartu eta gerta ez daitezen, eta gertatuz gero, ahalik eta ondoen erantzuteko. Horrela, dagoeneko zenbait lege, hitzarmen, protokolo, gida eta abar onartuta eta ezarrita daude eta horietan guztietan emakumeen aurkako indarkeriako kasuetan nola jokatu edo zer egin behar den azaltzen eta agintzen da, eta esan liteke tartean den erakunde edo sail bakoitzak badituela nola-baiteko jarraibideak.

N. Hala bada, nola islatu nahi izan duzue eta etorkizunean zer erabilgarritasun izan dezake gai honi buruz egin duzuen lanketak, Udalari eta herritarrei begira?

A. S. Udala da herritarrarengandik gertuen dagoen Administrazioa eta berari dagokio, neurri handi batean, emakumeen aurkako indarkeriako ara-



UDARREGI IKASTOLAN, HEZIKETAREN ALORRA LANDU ZEN BILKURA BATEAN.

zoan neurri eraginkor eta efektiboak ezartzea, betiere herritarren ongizatea bermatzeko. Usurbilgo Udalak ezarrita dauzka horrelako kasuetan eman beharreko urratsak baina gertatzen da, ordea, gai honetan hainbat eragile daudela zuzenean nahastuta eta batzuetan arazoak sortzen direla horien arteko koordinazioan, elkarrekin aritzean edo bakoitzari zer dagozkion argi ezartzean. Herritarrekin egindako bileretan ere gaia aztertu da eta horrelako kasuetan jarraitzen den protokoloa aztertzea eta udalerrira egokitutako protokolo bat lantzea aipatu da adibidez.

N. Bilkuretan aipatutakoa jaso ostean, finkatuko duzuen hurrengo hitzordua zein izango da?

A. S. Herritarren lantaldeak bukatuta, azken bilera bat egingo dugu udalako teknikariek. Bilera honetan, herritarren lantaldeetan eta teknikariek buruz buru egin ditugun bileretan landutako helburu eta ekintzak aztertuko ditugu ikuspegi orokorrarekin, horien bideragarritasuna aztertzeke eta beharrezkoa bada, egokitzeke.

Amets gaiztotik esnatu ezinean

Egunkaria itxi zutenetik ia zazpi urte pasa dira, oraindik ez da epaiketa hasi

Euskaldunon Egunkaria ireki-ta egon balitz, sortu zenetik 20 urte beteko lituzke 2010ean. Baina zazpi urte itxi zutenetik, eta oraindik frogarik ezean auzia artxibatzeko eskaera egin duten arren, auziperatuak epaituak izateko mehatxupean bizi dira egun. Urteotako errepassoa, egungo egoera eta etor daitekeena, lehen pertsonan bizi duen Joan Mari Torreldaik berak azaldu zuen Sutegin pasa den ostiral iluntzean, herrian osatu den babes taldeak antolatutako ekitaldian.

“Zentsura aztertu dut, baina inkisizioa ezagutu dut”. Hitz horiekin laburbiltzen zuen Joan Mari Torreldaik, Egunkaria auzian auzipetutako herritarrak, azken sei urte eta bederatzi hilabeteetan bizi izan duen egoera. Herrian osatu den babes taldeak antolatuta, 2003ko otsailaren 20 hartaz geroztik gertaturikoaren nondik norakoak azaldu zituen Sutegiko auditorioan, pasa den azaroaren 20an. “Terrorista zara plaza publikoan, gaue-tik goizera”, oroitu zuen urtetotan bizi duen amets gaizto hura hasi zen gauari buruz hitz egiterakoan.

Atxilotu ostean, inkomunikazioaldian jasan eta salatu zituzten torturak gogora ekarri zituen Torreldaik berak. “Pertsona txikitzeko modu bortitzena da”, modu horretan definitu zuen lehen egunetan jasandakoa. Gogora ekarri zuen, beldurragatik eta lanean zentratzeko zuen beharragatik zenbat kosta zitzaion bizi izan zuena publikoki kontatzea.

Elkartasuna, indar iturri

Esker hitzak izan zituen, urteotan jasotako babesa eta laguntzagatik. “Pribilejiatu batzuk izan gara. Horrek mantendu gaitu zutik”, adierazi zuen. Epaietari begira geratzen den denbora tarte honetan ere, aipatu jarrera horri tinko eusteko gonbita luzatu



JOAN MARI TORREALDAIREN HITZALDIAK JENDE UGARI ERAKARRI ZUEN.

zuen Torreldaik, berak zioenez, “ez dakigu eta non gera daitekeen auzia”. Bere esanetan, “dena da ETA” lelope horretan, urtez urte pausoka zirkulua zabaltzen joan dira. Lehenbizi ekintza armatuen aurka, gero ekimen politikoak izan zituzten jomugan, sozialak atzetik eta euskara mundura jauzi egin zuten 2003an, Euskaldunon Egunkaria itxita.

Euskaltzaindiako bileretara ezin joan

Epaietari begira daude jada. Esku artean behar lukete zitazioa, baina oraindik epaietaren jakinarazpenik ez dute jaso. Esperantza izan badutela dio Torreldaik, “Fiskaltzak posizioa mantentzen duen artean”, adierazi zuen. Epaiketa irabaztea, Torreldairen hitzetan, “guretzat eta euskararentzat oso ona litzateke”. Hotzikara eragiten duten bi datu adibide moduan; guztira, ia 300 urteko kartzela zigorra eta 234 milioi euro ordaintzea eskatzen diete auziperatuei.

Euren egoera judiziala dela eta, bi astean behin Madrilera sinatzera joan behar dute, ezin dute estatu espainarretik atera eta Torreldairen kasuan, euskaltzain izendatu arren, “ezin

Euskaltzaindiako bileretara joan”. Ipar Euskal Herrira joateko baimenik ez baitu.

Bidegabekeria, iruditan

Irailaren 11ko atentatuen ondoren, biktimak laguntzeko kartel moduko bat osatu zuten irailaren 12an hizkuntza desberdinetan argitaratu ziren munduko txoko desberdinetako egunkariekin. Hautatutako portaden artean, Euskaldunon Egunkaria bera zegoen. Irudi horiekin hasiera eman zion, hitzaldian bertan eskaini zen bideoari. Itxierako uneak, zenbait auzipetuk kartzelatik irten eta jasandako tortura latz harien kronika beltzak, auziperatu bakoitzari eskatzen zaion kartzelaldi luzea.

Sutegira bertaratu zirenek orduko gobernu espainiarreko barne ministro Anjel Acebesek atxilotetokiko herritarrak askeago sentituko zirela helarazi zuen mezua... Egun haieran gertatutakoa irudi eta lekukotza bidez oroitzeko aukera izan zuten Sutegira hurbildu zirenek.

Bere lagunek ez dute ahazten

Patxi Seguiolaren margoekin erakusketa antolatu dute Aginagan

Patxi Seguiola "Ximio" Aginagako presoak 10 urte bete ditu espetxean. Honen harira, bere lagunek eta Usurbilen Nahi Ditugu elkartekoek hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Patxiren margolanekin erakusketa jarriko dute Apaiz Etxean, mus txapelketa eta poteoa iragarri dituzte arratsalderako eta herri afaria antolatu dute Eliza Zaharrean.

Larunbat honetan, *Ximioren* lana izango dute gogoan. Goizean, mural bat margotuko dute eta Apaiz Etxean atondu duten erakusketa zabalduko dute.

Afaldu baino lehen egingo den ekitaldian, Patxi eta herriko gainerako presoen egoera izango dute gogoan. Mus txapelketako bikote irabazleak, besteak beste, Patxiren bi margolan jasoko ditu.

AFARIA ELIZA ZAHARREAN

"Afarirako txartelak aldeztu aurretik erosi behar dira Txiribogan edo Aginagako Zahar Elkartean"

Ekitaldiaren ondoren, Eliza Zaharrean afarian bilduko dira Patxiren lagunak eta animatzen diren guztiak. Hori bai, afarirako txartelak aldeztu aurretik erosi beharko dira



BERE LAGUNEK HERRI AFARIA ANTOLATU DUTE LARUNBAT HONETARAKO.

Txiribogan edota Aginagako Zahar Elkartean. Txartelak erosteko epea ostegun honetan amaituko da, azaroak 26. Salneurria: 20 euro; umeak 12.

Azaroak 28 larunbata

- 10.00 Mural-graffiti pintaketa.
 - 12.00 Patxiren margolanen erakusketaren irekiera apaiz-etxean (12.00-14.00 / 18.00-20.30).
 - 16.00 Mus txapelketa.
 - 19.00 Herri-poteoa, bertsolari eta trikitilariekin.
 - 20.30 Ekitaldia.
 - 21.00 Herri-afaria Eliza Zaharrean.
- Menua: langostinoak, zurrurutuna, txuleta eta ijito-besoa + K-K-P.
- Ondoren, musika eta dantzaldia.

Ostiral honetan, elkarretaratzea Mikel Laboa plazan

Hilabeteko azken ostirala-rekin egin ohi duten bezala, Etxean Nahi Ditugu elkartekoek elkarretaratzea iragarri dute Mikel Laboa plazan. Ostiral honetan, arratsaldeko 20:00etan hasiko da euskal presoen aldeko ekimena.

Aste honetan, presoen eskubideen aldeko defentsan, jardunaldiak antolatu ditu Etxeratek. Oihana Lizasok aurkezpen agerraldian adierazi zuenez, *Elkartasun uholdea* kanpainaren barnean daude jardunaldi horiek.

Oihana Lizasok jakinarazi duenez, "oso arrakastatsua" izaten ari da. Dagoeneko, 5.000 sinadura bildu dituzte.



ELKARTASUN UHOLDEA KANPAINA JARRI DA MARTXAN EGUNTAN.

ALIPROX

Kale Nagusia 10
 ☎ 943 361 182
 USURBIL

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Kale nagusia, 10
 Telf: 943 37 33 48
 943 37 09 13

©Jandegin - Gozotegia

LABE-GOXO

WWW.NOUA.COM
 USURBILGO ATARIA

Bigarren eskuko azoka Dema plazan

San Markos Mankomunitateak eta Udalak antolatuta, bigarren eskuko azoka egingo da igande honetan. Postu eta produktu ugari izango dira Dema plazan jarriko direnak.

Gordailu-salmentarako gunea ipiniko da azokak irauten duen denboran. Era honetan, edozein herritarrek, merkatu egunean eta lehen orduan, bere gauzak eraman ditzake (arropa eta tamaina handikoak ezik) eta antolakuntzako lan-taldeak zaindu eta salduko dizkio. Ondoren,

13:45ean, gordailu-salmentarako arduradunek salmentaren berri emango diote pertsona bakoitzari, salmentatik lortutako dirua eta saldu ez diren gauzak itzuliz. Zerbitzua doakoa da.

Tailerrak ere bai

Azokarekin batera, igande honetan Dema plazan hurrei zuzendutako tailerrak jarriko dira martxan. Hala nola, informazio puntura hurbiltzen diren herritarrei erosketa-poltsa berrerabilgarria emango zaie opari moduan.



POSTUAK ETA TAILERRAK JARRIKO DIRA
DEMA PLAZAN.

Eguedian, Dema plazan

Azoka, igande honetan zabalduko da Dema plazan, goizeko 10:00etan hasiko da eta eguerdiko 14:00ak arte izango da irekita.

Reziklarte erakusketan, berrerabilera eta irudimena bat eginik



Edukiontzia arte obra. Nork esango zuen horrelakorik ikusiko genuenik? San Markos Mankomunitateak antolatu duen Reziklarte ekimenean 26 artisten obrak bildu dira. Erakusketa ibiltari hau Usurbilen izan da egun hauetan, laster, San Markos mankomunitateko

hamar herrietatik pasatuko da.

Erakusketa ez ezik, informazio gunea ere badakar Reziklarte erakusketak. Gela horietan bi hezitzailek birziklatzearen inguruko informazioa emateaz gain, ikus-entzunezko bi bideo daude, eta atez ateko bilketa nola egiten den azaltzen dute.

Santo Tomas azoka, abenduaren 20an

Abanduaren 21ean ospatu ohi da Santo Tomas azoka. Usurbilen, normalean, astebete lehenago izaten da. Aurten, ordea, abenduaren 21a astelehenarekin tokatu denez, Usurbilen bezperan egingo da azoka, abenduaren 20an igandea.

Beste behin ere, inguruko babarrun zein sagardo ekoizle partikularren arteko lehiaketa izango da. Babarrun lehiaketan, partehartzaile bakoitzak babarrun kilo bat aurkeztu beharko du eta, sagardo lehiaketan, hamar botila aurkeztu beharko dira.

Egunean bertan, gerturatzen diren guztiek sagardoa dastatu ahal izango dute, txistorra eta taloaz lagunduta.

Noiz: Abenduak 20, igandea.

Non: Frontoian, goizez.

Antolatzaileak: NOAUA! eta Sagardo Egunaren Lagunak.

Partehartzearen alde, errausketaren aurka

Larunbat honetan Donostian manifestazioa egingo da, herri plataformek deituta

Errausketaren aurkako herri plataformen koordinakundeak antolatu du larunbat honetan Donostian egingo den manifestazioa. Arratsaldeko 17:00etan abiatuko da Bulebarretik. Demokrazia partehartzailearen alde eta errausketaren aurkako manifestazioa izango dela adierazi dute antolatzaileek.

Duela hilabete batzuk, hondakinen inguruko lege proposamen jasangarri baten aldeko apustua egin zuen errausketaren aurkako plataformak. Euskal Autonomi Erkidegoko 35.000 pertsonen sinadurekin babestu zuten Hondakinen Lege Proposamena. Proposamena hori Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zuten baina ez zen eztabaidatua ere izan. EAJ-

PNV, PSE-EE eta PP lege proposamena aztertzearen aurka azaldu ziren.

Honek herri plataformen haserre eragin zuen. Herritarren ahotsa kontuan ez hartzea leporatu zioten Eusko Legebiltzarrari.

17:00etan, Bulebarrean

Honen aurrean, manifestazio deialdia egin zuten. Larunbat honetan, Donostian, arratsaldeko 17:00etan Bulebarrean. Herri plataformen esanetan, "errausketaren inposatzearen alde itsuki jarraitzen duten bitartean, gu errausketarik gabeko hondakinen bilketa eta kudeaketa defendatzen jarraituko dugu, gure osasuna zein ingurugiroarentzat egokiagoa dena. Hau guztiagatik, eta errausketarik gabeko politika partehartzaile eta anitzaren alde, manifestazioa burutuko dugu".



MANIFESTAZIOA IRAGARTZEKO
EGIN DUTEN KARTELA.

Usurbilgo partehartze eredua, Eusko Ikaskuntzan aztergai

Usurbilgo atez ateko bilketa sistema izan zuten mintzagai, Eusko Ikaskuntzak pasa den astean Gasteizen antolatutako kongresuan. "Gizarte aurrerapen iraunkorrerako berrikuntzak" izenburupean, udal parte hartze eredu berriei buruzko tailerrak antolatu ziren. Besteak beste, Usurbilgo Udalak abiatu duen hondakinen kudeaketa ereduaz mintzatu zen Xabier Mikel Errekondo alkatea. Bilbo, Gasteiz eta Tolosako adibideak ere aztertu zituzten, lekuan lekuko udal ordezkarien eskutik. Tailer sortaren helburua, krisi ekonomikoaren aurrean, gizarte erantzun berriak bilatzeko tokiko mailan ematen diren partehartze eredu berrien inguruko gogoeta egitea zen.



EUSKO IKASKUNTZAREN JARDUNALDIETAN HARTU DU PARTE XABIER MIKEL ERREKONDOK.

“Aire garbia arnastu nahi dugu eta lur sanoa landu nahi dugu”

Osasunez bizi esaldiaren atzean, Zubietako gaztetxoek agerraldia egin zuten pasaden larunbat eguerdian. Errausketaren aurkako ekitaldia, ordea, lehenago hasi zen, marrazki tailerrarekin. Agerraldian, idatzi bat irakurri zuten eta larunbat honetan errausketaren aurka Donostian egingo den manifestaziora joateko deia egin zuten.

Jarraian duzue, Zubietako haur zein gaztetxoek pasaden larunbatean egin zuten agerraldian aditzera eman zuten idatzia: “Esan digute zaborra ahalik eta gutxiena sortu behar dela. Komeni dela tresnak, jostailuak eta gainontzeko gauzak behin eta berriz erabiltzea, hartara probetxu hobea ateratzen zaiela eta ez dugula hainbeste hondakin sortzen.

Esan digute bota beharrekoak koloretako ontzietan botatzeko, ondo berezita. Eta kolorez apaindu ditugu hondakinak: marroia, horia, urdina, berdea. Gauza bakoitza bere tokian. Nahastu gabe.

Hitz potoloak esan dizkigute: birziklatu eta konpostatu bezalakoak. Eta ikasi dugu zer diren. Orain badakigu usteltzen diren hondakinekin lurrerako ongarrira egin daitekeela. Eta badakigu paperetik berriz paper erabilgarria sortzen dela, eta



ZUBIETAR HAUR ETA GAZTETXOAK, PASA DEN LARUNBATEAN EGIN ZUTEN AGERRALDIAN.

plastikotik plastikoa.

Hori guztia erakutsi digute. Eta guk ikasi. Zentzuzkoa dirudi. Etorri da atez ateko bilketa Usurbila, eta hasieran kezkatuta sumatu dugu jende heldua. Baina gaur lasaiago antzematen ditugu: erraza da gauza bakoitza bere tokian jartzea, eta nahastu gabe etxe ondotik jasotzea.

Baina, aldi berean, esaten ari zaizkigu errausgailu bat egin behar dutela gure lurretan, zaborra erretzeko fabrika handi bat. Artzabaletako erreka gain-gainean egin behar dutela. Eta esan digute toki askotako zaborrak inguru honetara ekarri eta erre egingo dituztela. Eta ke beltza botako dutela labe handiek, etengabe. Eta arnastuko dugun airea ez dela

hain garbia izango. Eta landuko dugun lurra ez dela hain sanoa izango. Eta nekez jango ditugula gure barazkiak. Eta ezin dugu ulertu! Ez al genuen ba birziklatu eta konpostatu behar? Ez dugu ulertzen eta haserre gaude, ez zaigulako fundamentuzkoa iruditzen.

Horregatik eskatzen diegu helduei ez dezatela txorakeriarik egin eta joka dezatela zentzuz. Aire garbia arnastu nahi dugula eta lur sanoa landu nahi dugula. Ez dugula ke beltzik nahi, kolore biziz apaindutako ingurunea baizik.

Horregatik, dei egiten diegu gazte guztiei, eta beren gurasoei, datorren azaroaren 28ko manifestaziora joan daitezen. Hantxe izango gara gu ere”.

Kuboa, edukiontzien orde

Reziklate erakusketa aprobetxatuz, Usurbil Bizirik taldeak atez ateko bilketa sistema aldarrikatu zuen beste behin ere. Igandean, erakusketa-aren azken egunean, kubo marroia aldarrikatzeko ekimena antolatu zuten. Herritarrek bat egin zuten deialdiarekin eta kuboa eskuetan azaldu ziren Dema plazan. Ekitaldiak iraun zuen bitartean, larunbat honetan Donostian egingo den manifestaziorako deia egin zen megafonia bidez.



EDUKIONTZIEN ALDEAN, KUBO MARROIA ALDARRIKATU ZUTEN.

Horrela, beste 25 urtez

25 urte bete ditu Zumarte Musika Eskolak. Hori ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu zituzten aurreko astean. Bide batez, Santa Zezili egunarekin bat eginik, Musika Eskolako trikitilariak, panderojoleak eta Txarangako gazteak ibili ziren kalejiran.

Azaroaren 17an, txiki geratu zen Suteigiko auditorioa. Musika Eskolako talde ezberdinak aritu ziren, lagun eta senideen aurrean. Biharamunean, Donato Goyenecheren taldeak perkusio erakustaldi ederra eskaini zuen. Eta azaroaren 19an, kalejiran ibili ziren Zumartekoak, Santa Zezili eguneko partez.



AZAROAREN 18AN ARITU ZEN DONATO GOYENECHEREN TRIO PERKUSIO TALDEA.



ZUMARTE MUSIKA ESKOLAKO TRIKITILARIAK ETA PANDEROJOLEAK, SANTA ZEZILIKO KALEJIRAN.



ZUMARTEKO TXARANGAKOAK ERE KALEJIRAN IBILI ZIREN, INAUTERIETAKO DOINUEKIN HERRIA ALAITUZ.

Asteburu honetan amaituko da Zumetaren erakusketa


Donostiako Ekain galerian daude Jose Luis Zumetaren koadroak. 'Oi, bihotz!' erakusketan bildu dituen lanak. Urritik ikusgai egon da baina asteburu honetan amaituko da Zumetaren erakusketa ikusteko aukera.

80ko hamarkadan Arrasateko psikiatrikoan, "Globo Rojo" aldizkaria argitaratzen zen. Bertako gaixoen testuekin osatutako aldizkaria. Idatzi horietan aurkitu zuen erakusketa honen inspirazio iturria.

Abstrakzioaren eta figurazioaren bidetik, kolore bizitan egindako serigrafia dira erakusketa honetan jaso direnak.

Liburu batean jasoak

Iragan uztailan Bilboko Arte Eder museoan jarri zuten lehen aldiz "Oi, bihotz" erakusketa eta igandera arte, Donostiako Ekain Artelanak galerian daude ikusgai. Horretaz aparte, aldizkarietik sorturiko 35 artelanak eskuz josiriko liburu formatuan bildu dituzte, eta guztira 150 ale daude salgai.



EKAIN GALERIAN JASO DEN LANETAKO BAT.

Ekain Artelanak galeria
 Iñigo kalea, 4 (Alde Zaharrea).
 Orduetgia: 11:30-13:30 /
 17:30-21:00 (igandetan itxita).

Bertsoa eta kantua, bat eginik

Larunbat honetan, bertsolariekin batera arituko dira Kantu Taldekoak

Hilabeteko azken larunbatean, kalejiran ibili ohi dira Kantu Taldekoak. Asteburu honetan, ordea, bi bertsolarien laguntza izango dute. Hori gutxi balitz, eguerdian kantuan ibili eta gero, bertsolariekin batera bazkaldu eta kantuan aritzeko proposamena egin digute. Andatzpen egingo da bertso-kantu jirako bazkaria.

Kantu Taldekoak eguerdiko 12:30ean elkartuko dira frontoi inguruan. Orduantxe hasiko dira kantuan. Eguerdiko jira horretan ere Amaia Agirre eta Jexux Mari Irazu bertsolariek hartuko dute parte.

14:00etarako, Andatzpe elkartean izango dira. Babarrun jana egin eta gero, kantuan jarraitzeko asmoa dute. Eta eguerdiko jiran bezalaxe, bazkalostean ere kantuan arituko dira Amaia Agirre eta Jexux Mari Irazu bertsolariek.

Txartelak bazkarirako, salgai
Bazkarirako txartelak aldeztu aurretik erosi behar dira. 20 eurotan daude salgai Txiribogan eta Artzabalen. Txartelak eskuratzeko epea ostegun honetan amaituko da (azaroak 26).

Bota Punttubak eta Euskal Kantu Taldeak elkarrekin antolatu dute Andatzpen egingo den bertso-kantu jira eta bazkaria.



AMAIA AGIRRE ETA JEXUX MARI IRAZU
BERTSOLARIAK KANTU-JIRAN ETA
ONDRENGO BAZKARIAN ARITUKO DIRA.

Odol Emaileen Eguna gerturatzen ari da

